

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

29,7 milioiko gastua onartu da iparraldeko eremuko errepide eta autobien kontserbazio integrala egiteko hainbat kontratutarako, 2022a arte

Irurtzun eta Mugairiko autobia eta errepideen Kontserbaziorako Zentroei dagozkie

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 2

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan onartutako erabakiaren arabera, baimena eman zaio Obra Publikoetako zuzendari nagusiari, 2022a arte iparraldeko eremuko errepide eta autobien [kontserbazio integralerako kontratuak gauza ditzan](#), 29.700.000 euroko guztizko aurrekontuarekin.

Zehazkiago esanda, honako kontratu hauek baimendu dira:

-Irurtzungo kontserbazio-zentroko autobisen (A-15, A-10 eta A-1) kontserbazio integrala, 8.137.500 euroko gehienezko gastuarekin 2018tik 2021era bitartean.

-Irurtzungo kontserbazio-zentroko errepideen kontserbazio integrala, aipatutako hiru autobiena izan ezik, 9.187.500 euroko gehienezko gastuarekin 2018tik 2021era bitartean.

-Mugairiko kontserbazio-zentroko errepideen kontserbazio integrala, 12.375.000 euroko gehienezko gastuarekin 2019tik 2022ra bitartean.

Segurtasunaren hobekuntza

Errepideen kontserbazio egokiak eragin zuzena du erabiltzaileen segurtasunean, azpiegiturek eskaini beharreko zerbitzuaren kalitatean eta horien iraupenean. Neurri horren bitartez, ezbeharren kopurua murriztu nahi da, baita istripuen ondorioak eta larritasuna ere.

Hauexek dira bideratu beharreko ekintzarik nabarmenenetako batzuk: neguko bidezaintza; gorabeherak eta larrialdiak artatzea; galtzadak eta bazterrak zein arekak eta eretzak garbitzea; sastrakak kendu eta zuhaitzak inausi eta moztea; fabrika-lanen garbiketa eta luzerako nahiz zeharkako drainatzeak; arekak lurrean nahiz hormigoian eraikitzea; narriatutako bide-zorua drainatu, fresatu eta konpontzea; zuloak estaltzea, balizajeak eta seinaleak lehenbailehen konpontzea (istripuengatik); ertzeko bidarriak berritzea, eta segurtasun-barrera berriak jartzea.

Gainera, kontserbazioak aldi behin abiatu beharreko ekintzak barne hartzen ditu (arrakalak zigilatzea, ezpondak egokitu eta horiei eusteko lanak, eusteko harri-lubetak jartzea, ikusgaitasun eskaseko trazadurak zuzentzea, etab.), baita bide-zorua sendotzea, seinaleztapen

horizontala eta bertikala berritzea, errepideen balizajea eta itxiturak eraberritzea eta salbuespenezko larrialdiak artatzea ere.